

## BASERRI PINTURA MURAL I. LEHIAKETA

Baserrri jatetxeak eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateak lehiaketa hau deitu dute jatetxe horren kanpoaldean horma irudi bat margotzeko.

### Baldintzak.

2019/2020 ikasturtean, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean ofizialki matrikulatuta egotea.


Era berean, azken bost urteetan fakultate horretan ikasketak amaitu dituzten pertsonek hartu ahal izango dute parte.

### Gaia.

Edizio honetarako gaia askea izango da.

### Hormaren ezaugarriak.

Neurriak: 11,20 x 2,10 metro.



## Proposamenak aurkeztea.

proposamenak A3 neurrian aurkeztuko dira, euskarri irmo baten gainean (luma kartoia) muntatutako paper batean. Atzealdean izenburua idatziko da.

Obraren aurrealdean **itxitako gutun azal** bat itsatsiko da. Hurrengo hauek jaso beharko ditu nahitaez:

- Kanpoaldean, proiektuaren izenburua, errazago identifikatzeko.
- Ikaslearen edo ikasle ohiaren datu pertsonalak, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.
- 2019/2020 ikasturteko matrikula ziurtagiriaren fotokopia edo ikasketak amaitu izanaren ziurtagiria.

## Saria.

Lan eta proiektu onenak BI MILA EURO (2.000) eskuratuko ditu. Horma irudia margotzeko materialak zenbateko horretatik deskontatu beharko dira. Saria Leioako Baserri jatetxearen kargura izango da.

Bi ordainketa egingo ditu: lehena, MILA EUROKOA (1.000), proposamen irabazlea jakinarazi ondoren; bigarrena, MILA EUROKOA (1.000), horma irudia margotu eta gero.

Irabazlea pintura lanen zuzendaritza teknikoaz arduratuko da. Lanak 2020ko maiatzaren lehen hamabostaldian egin beharko dira.

Beharrezko azpiegitura guztiak (egiturak, lizentziak eta gainerako gastuak) Baserri jatetxearen kontura izango dira.

Baserri jatetxeak irudi irabazlea irabazi asmorik gabe erabili ahal izango du langileentzako kamisetak eta bestelakoak estanpatzeko.

Hautatutako lanen egileak dagozkion komunikazio eta erreprodukzio eskubideak lagako ditu oinarri hauetan aipatutako jardueretan eta deialdietan soilik erabiltzeko. Hala ere, lanon jabetza intelektuala eta loturiko eskubideak bereak dira.

### **Aurkezteko eta jarduteko egutegia.**

Lanak **aurkezteko epea apirilaren 8an** amaituko da.

Proposamenak Arte Ederren Fakultateko **atezaintzan** utziko dira, 9:00etatik 20:00etara.

Epaimahaiak apirilaren 27an jakinarazi du lehiaketaren irabazlea.

Horma irudia maiatzeko lehen hogeitun egunetan margotu beharko da.

Amaitutako lana maiatzaren 29an aurkeztuko da publikoki.

### **Parte hartzeko baldintzak.**

Lehiaketa honetan parte hartuz gero, aitortzen da deialdiko baldintzak eta oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.

Zalantzarik izanez gero, idatzi honako helbide honetara:  
[ecultural.bellasartes@ehu.eus](mailto:ecultural.bellasartes@ehu.eus)